

# FUNTSEZKO JARDUERAK

---



*DARGIA* proiektua aurrera eramateko hainbat funtsezko jarduera daude. Lehenik eta behin, noski, leku fisikoa aurkitzea eta hau gure lur zinetikoarekin eta gure enpresaren itxurarekin moldatzea beharrezkoa da. Bigarrenik, gure jarduera hasteko dantza ikastaroak eman behar ditugunez, dantza irakasleak izatea da funtsezkoa. Bestalde, gure lur zinetikodun espazioak izan ahal dituen beste erabilerak koordinatu behar dira. Gainera, enpresaren eta hauen sare sozialen gestioa ere funtsezko jarduera bat izango da, jarduna hasi baino lehen eta hasi eta baita gero ere. Azkenik, kale presentzia mantentzeko ekitaldiak egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Leku fisikoari dagokionez, jada aurkitu dugu gure eskola hau ezarriko dugun lokala, eta Pavegen enpresarekin harremanetan gaude. Bi baliabide fisiko hauek ziurtatzea Goiatz Aguadoren eta Naroa Egañaren zeregina izango da.

Gure lokala, ordea, ez dugu zertan guk bakarrik erabili behar. Hainbat kirolari talderi eta dantza taldeei uzteko asmoa daukagu, beraiek dohainik entrenatzeko leku bat lortzean guk beraien kirolak alferrik sortutako eta inora ez doan energia hori xurgatuko dugulako lur zinetikoaren bidez, gure lokaleko energia erabilpena dohainik mantenduz.

Dantzaren inguruan hitz egiteko, gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa da, hiru bazkide sortzaileez gain, une oro dantza irakasle profesional batek gurekin lanean jardutea. Jada aurkitu dugu gurekin lan egiteko prest dagoen irakasle trebe bat, eta guretzako kontratupeko lana egingo du. Gainera, Mikel Alberdi, gure enpresaren kidea, dantza irakasle bat izateko ikasketetan dabil eta momentuz dantza-irakaslearen laguntzailea izango da. Beraz, ordutegiak koordinatzeaz ere Mikel Alberdi sozia arduratuko da.

Finantza eta administrazioa ere, noski, funtsezko jarduerak dira. Goiatz Aguado, enpresaren bigarren kidea, *DARGIA*ren finantza-arloaz eta sare sozialetaz arduratuko da. Naroa Egañak, azken kideak, enpresaren administrazioa eta koordinazioa hartuko ditu bere gain. Gainera, Mikelek eta Naroak, betiere Goiatzen aholku finantzarioa kontuan hartuz, *DARGIA*ren ekintza eta ekitaldi desberdinak antolatzeaz ere arduratuko dira.



Sare sozialen munduarekin jarraituz, Goiatz Aguado izango da telefono-deie sare sozialen arduradun. Honela, bezeroen zalantzak eta galderak erantzuteko pertsona bat egongo da, edozein zalantza argitzeko eguneko hogeita lau orduetan.

Bestalde, Mikel eta Naroak bezeroen ideiak hartu eta ekintzak antolatuko dituzte, hala nola herritarrek gure proiektuan parte hartzen dutela sentitzeko eta sentimendu honek gureganako gertutasuna bermatzeko asmoarekin. Ekintza hauek hiru hilero egingo diren dantza ekitaldiak izango dira. Hauek gai ezberdinak izango dituzte eta honekin gure bezero eta herritarrekin harreman estuak sortzeko aukera izango dugu, jendeak parte hartu nahiko du eta gure lana guztien begi bistara geldituko da. Ekitaldi hauek grabatu egingo dira eta ikasleen baimenarekin gure sare sozialetan jarriko ditugu. Horrela, dantza polit hauek ikustera ahalbidetuko ditugu gerturatu ezin izan direnak, mundu guztiak gure lana ikusteko aukera izan dezan, guretzako komunitatean parte hartzea ere funtsezko jarduera bat delako.